

# **SAKRISTAUEN EGIKERAK (KEPA ENBEITAREN OLERKIAK)**

Adierazoteko neure gurariak  
bide batez esango ditudaz egiak;  
sakristeruak dira kristiñau zoliak,  
entzungarriak barriz euren pikardiak.

Sakristeruak dira, beiñipeiñ gelenak,  
berera zelan ondo bizi dakienak,  
ziri-sartzaillak barriz dira andienak;  
au ipinten dau emen ondo dakienak.

Egun danetan dagoz sarturik eleizan,  
abadien aurrean Santu baten gisan;  
gero ikusi bear zer moduz dabizan,  
zintzo asko orain arte beintzat ezta izan.

Orren artean dira txiki eta andiak,  
euren egikeretan aingeru argiak;  
galdu ezalzan jaunak edan larreiak,  
eurak artzien dabez ardura andiak.

Mezea egin baiño len adierazo,  
iarten dabe ontzia beterikan oso.  
ta barrukoa zelan egoten dan gozo  
sarritan oi deutsee eperdia jaso.

Oiñ denpora zan baten eleiza batean  
batzarra bik ein dabe alkarren artean,  
abadea etxetik daben bitartean  
ontziak garbitzeko diranak betean.

Adierazoko dot batek eiña zer dan,  
ardao zuri gozoa botillatik edan  
ta, bere uts-egiña zuzentzeko ustean,  
trabestuta uragaz beia busti eban.

Ontzia trabestuta maiaren ganean  
diño abade jaunak ikusi ebanean:  
—Nok oni kendu deutso eukana aldean?  
—Eztau, jauna, ikusten jausita or belan?

Urrengo egunean bardin eban uste,  
egingo ebala berak bestearen beste;  
atrapaten dau bertan, asten yako auska...  
belarrondoa jarri eutsan berotuta.

Asi ziran mezatan betiko antzean,  
baiña eskapau eutsan erdiz-erdizean;  
pelotaka ebillen bera eleizpean  
abadeari gogait eragin artean.

Per omnia sekula sekulorunean;  
ez eutsan entzun baten ez bigarrean;  
otseiña bakarrik zan eleiz barrean,  
arek erantzun eutsan irugarrean.

Otseiñen erantzunak ba-deutso balio,  
Amen esanda, berak erantzuten deutso;  
zureak baiio ta zureak balio,  
apaizen erantzunak barre erain lekio.

Sakristeruentzako eztau premiarik  
aparte ipinteko aitara barririk,

Santu einda an jarteko zarrrik ez gazterik;  
Izan leiteke, baiña neuk eztot usterik.

Arlo luzeegia nik egin dot artu,  
zerren batak bestea oi deust gogoratu;  
danak esanda iñor ezteiñ asarratu,  
geiago esan barik bear dot amaitu.

(Ibaizabal 1902)

Irakurlea: Araiz Undabeitia Enbeita, Kepa Enbeitaren birloba -  
Usparitxa, Muxika